



DONOSTIAKO UDALERRIKO ONDASUN HIGIEZIN **HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN** **BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2016ko irailaren 20an, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen udalerrri honi dagozkion hiri-izaerako ondasun higiezin lurzoruaren eta eraikuntzen balioen ponentziaren berrikuspena. Ponentzia horretan oinarrituta lortu ziren hiri-izaerako ondasun higiezin katastro-balio berriak eta horiek 2017ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean.

Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen duenez, katastroko balioak Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz edo dagozkion udalak eskatuta. Aldaketa horiek gauzatuko dira baldin eta hirigintza-plangintzak edo beste inguruabar batzuek agerian uzten badute funtsezko desberdintasunak daudela udalerrian dauden ondasun higiezin katastroko balioen eta merkatu-balioen artean, edo udalerriko zonaren batean edo batzuetan dauden ondasun higiezin merkatu-balioen artean.

Balio Ponentzia onartu zenetik, udalerriko hirigintza-plangintzan lurzoruaren izaerari eragiten dioten aldaketak egin dira, eta horiek, lurzoruaren eraginpeko ondasunen merkatu-balioan eragina dute.

Horregatik guztiatik, aldatu egin da udalerrri honetako hiri-izaerako ondasun higiezin lurzoruaren eta eraikuntzen balio ponentzia.

XEDEA

Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldatu egin da udalerriko Balore Ponentzia, honako zirkunstantzien ondorioz:

- **Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntuala, «MZ.10 Basozabal» eremuari dagokiona, 2023ko irailaren 28an egindako udaleko osoko bilkuran behin betiko onartua (GAO 2023-10-16 eta akatsen zuzenketa GAO 2023-10-24).**
- **Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntuala, «IB.13 Igara» eta «IB.14 Illarra Berri» eremuei eta Erregeguneko lursailei dagokiona, 2024ko otsailaren 22an egindako udaleko osoko bilkuran behin betiko onartua (GAO 2024-03-08).**



EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Balioen Ponentzian honako aldaketa hauek egingo dira:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugaketa aldatzen da.**
- 2.- 415, 444 eta 804 zona katastralen mugak aldatzen dira.**
- 3.- 615 zona katastrala kendu egiten da.**
- 4.- X azpizona katastrala esleitu zaie 444 zona katastraleko handipenaren kale edota kale tarteei.**

I ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoak.

II ERANSKINA

Zona katastralen planoak.